

NI JAIO NINTZEN EGUNA



Apirilean jaio nintzen ni. Udaberria zen. Egun hartan euria ari zuen. Negar pixka bat egin omen nuen. Lehenengo garbitu egin ninduten eta gero jantzi. Gurasoak oso pozik zeuden. Nire aitona-amonak eta osaba-izebak etorri ziren ni ezagutzera. Gurasoek erabakita zeukaten niri zer izen jarri. Nik oso ile gutxi neukan, eta ez neukan hortz bat ere. Baina orain handia naiz eta argazkiei begiratzen diet.

1. Zein hilabetean jaio zen? _____
2. Nola zen eguraldia? _____
3. Zer egin zuen ospitalean lehenengo? _____
4. Zergatik uste duzu garbitzen dituztela umeak jaiotzean? _____
5. Nortzuk joan ziren ezagutzera? _____
6. Zer izen jarri zioten? _____
7. Nortzuk jarri zioten izena? _____